

Osoko bilkura

Baionan, 2014ko urriaren 31n

Urrutia, Andres, euskaltzainburua,
Videgain, Xarles, buruordea,
Kintana, Xabier, idazkaria,
Aleman, Sagrario, diruzaina,
Coyos, Jean-Baptiste, Jagon sailburua,
Arkotxa, Aurelia,
Azkarate, Miren,
Charritton, Pierre,
Iñigo, Andres,
Lakarra, Joseba,
Oihartzabal, Beñat,
Oñederra, Miren Lourdes,
Peillen, Txomin,
Sagarna, Andoni,
Toledo, Ana eta
Zalbide, Mikel.

Mujika, Alfontso,
Osa, Erramun,
Urkia, Miriam eta
Zabaleta, Joseba,
zegozkien gaietan.

Ezin etorriak eta ahalak: Adolfo Arejita ahala Xabier Kintanari; Patxi Goenagak ahala Miren Lourdes Oñederrari;

Jose Irazu «Bernardo Atxaga»k ahala Andres Urrutiari; Jabier Kaltzakortak ahala Andres Urrutiari; Patxi Salaberrik ahala Andres Urrutiari; Pello Salaburuk ahala Miren Azkarateri; Joan Mari Torrealdaik ahala Andoni Sagarnari; Patxi Uribarrenek ahala Andres Urrutiari; Patxi Zabaletak ahala Andres Iñigori.

Osoko bilkura, Baionako Euskal Museoan hasi da, goizeko 10:00etan, ezkerreko zutabearen ageri diren euskaltzainak bertan direla.

Hasieran, euskaltzainburuak euskaltzain guztiak agurtu eta etorririkoen zerrenda eta berorien ahalak irakurri ditu, eta quoruma badela egiaztatu ondoren, Euskaltzaindiaren urriko Osoko bilkurari hasiera eman zaio, eguneko gaien ordenaren arabera.

1. Osoko bilkurako (2014-09-26) bilera-agiria onartzea, hala erabakiko balitz.

Idazkariordeak bilera-agiriaren lehenbiziko puntuan zenbait akats ortografi-

ko dagoela adierazi du. Zuzenketek bilera-agiriaren edukia aldatzen ez dutenez eta bestelako oharrak ez dagoenez, bilera-agiria onartu da.

2. Exonomastika. «Antroponimia: Erromatar Inperioko pertsona-izenak eta mitologia». Aurkezturiko oharrak aztertu eta erabaki, hala badagokio. Ez da oharrak izan eta, beraz, proposamena ontzat eman da.

3. Hiztegi Batua 2. itzulia, zerrenda osagarriak: A letra aurkeztu.

Hiztegi Batuko lantaldeak prestatu dituen zerrenda osagarrien aurkibidea aurkeztu du A. Sagarnak, *Euskaltzaindiaren Hiztegi*az arduratzen den euskaltzainak.

Berak argitu duenez, bi lantaldeen arteko abiada ezberdinagatik, bere sasoiaren zenbait zerrenda aztertu gabe utzi ziren (besteak beste, txanponen izenak, zodiakoa, familiaren inguruko saila, izen propioetatik eratorriak, -tar osarakoak eta abar). Horiek horrela, euskaltzainek oharrak edota iruzkinak egiteko modua izan dezaten, zerrenda horiek aurkeztuko dira gaur zein hurrengo osoko bilkuretan. Segidan, hitza Miriam Urkiari, Hiztegi Batuko lantaldeko buruari, eman dio.

M. Urkiak zerrenda osagarriko A letra aurkeztu eta zerrendan kolore desberdinek zer esan nahi duten azaldu du. Era berean, oharrak egiteko moduz argibideak ere eman ditu. Ohar edo iruzkin kopurua zein izango den ez dakitenez gero, euskaltzainek azaro osoa izango dute oharrak-eta egiteko. Azaroko Osoko bilkuran beste hitz-sorta bat aurkeztuko da. Urtariletik aurrera Osoko bilkuran aztertu eta onartuko dira aurkeztu direnak, hala erabakitzen denean.

M. Azkarate euskaltzainak oharrak egin ahal izateko, hitz bakoitzaren atzealdean dagoen dokumentazioa jasotzea behar-beharrezkoa dela esan du. Ondorioz, hitz horiekin lotura duten argibideak euskaltzainei bidali dakizkien eskatu du. Hala egitea erabaki da Osoko bilkuran. Ondorioz, Osoko bilkuraren ostean dokumentazio hori eskuratuko zaie euskaltzainei euskarri elektronikoan Idazkaritzatik.

Gaur aurkezturiko zerrendari oharrak edo iruzkinak egiteko aldia ireki da, azaroaren 30ean, igandean amaitzen dena. Oharrak aurkezteko fitxa bat ere aurkeztu da, ezinbestez baliatu beharko dena. Puntu honekin amaitzeko, A. Urrutia euskaltzainburuak bi-biei eskerrak eman dizkie eta bere poztasuna erakutsi du elkarrekiko lankidetzaren emaitzengatik, orain arte eginiko lana azpimarratuz.

4. *Alphonsa Rodriguez Jesusen Compagnhaco aitaren guiristinho perfeccioniaren praticaren parte bat* (1782), argitalpenaren aurkezpena.

Euskaltzaindiak eta Euskal Herriko Unibertsitateak lankidetzan argitara eman duten idazlan hau Joseba Lakarra euskaltzain osoak eta Iñaki Camino euskaltzain

urgazleak aurkeztu dute. Hasteko, lanaren garrantzia azpimarratu da, Etxepareren *Linguae Vasconum Primitia*eren ondoan, hauxe baita behe nafarreraz argitaratu den testu nagusia. Itzultzailearen berri emateko, jesuitekin kontsultak egin zituela, baina beronen biografiako paperak Frantziako Iraultza garaian erre zirela argitu da. Euskal itzulpena A. Rodriguezen obraren zein ediziotatik egina den ere ez dago garbi, baina edonola ere ez haren obraren laburpenetik behintzat. Itzultzean, izandako iturriak, erabiliriko grafia bitxiak eta euskalkiaren ezaugarriak aipatu dira. Batzuetan jatorrizko testua bikoiztu, beste batzuetan aldiz, pasarteak elkartu eta, inoiz, bi kapitulu zirenak bakarrean bildu direla ere esan da.

Erabiliriko euskarari dagokionez, I. Caminok ez du uste itzulpen honetako hizkuntza-ezaugarrien konbinazio hori orduko Oztibarrekoa edo Amikuzekoa denik, eta pentsatzen du Jatsuko euskara den zerbaiten gainean Zuberoako aldaera batzuk erantsi zirela, baina era guztiz ausazko eta kaotikoan. Edonola ere, hitzen lematizazioa egin du, hark erabiliriko lexikoaren hiztegia egiteko. Hizkuntzaren inguruko zalantza batzuk argitzeko X. Videgainek liburu honen zukako alokutiboez eginiko ikerketan oinarritu da, eta P. Charrittonek emandako laguntza ere eskertu du.

Azalpena amaitutakoan, euskaltzainburuak bere izenean, eta erakundearenean ere, zorionak eman dizkio I. Caminori gauzatutako lan ederragatik.

Tx. Peillenen ustez, ekialdeko behe nafarrerakoa da, Lapurdiko hitz batzuekin. X. Videgainek I. Caminori zorionak eman, eta Zuberoako eta Amikuzeko euskalkien kidetasunez mintzatu da. B. Oihartzabalek ere zorionak eman dizkio I. Caminori bere lanagatik eta galdera egin du, ea noraino irakurriak zituen itzulpenaren egileak garai hartako euskal obrak. Beraren ustez, idazle txukuna barik, maiz zabarra zen eta, baina halere, hizkuntza ongi menperatzen zuen eta aberatsa zen.

M. L. Oñederrak pentsatzen du, tradizio idatziaz gainera, agian gogoan eduki beharko litzatekeela ahozkoa ere, hots, erregistro mintzatua. M. Azkaratek I. Caminok ekarritako material bikaina goraiatu du, egileari zorionak ere emanez.

5. Euskaltzaindiaren 2015. urteko egutegia aurkeztu.

E. Osa idazkariordeak 2015. urteko egutegi proposamena, Zuzendaritzak 2014ko urriaren 29an eginiko bilkuran onarturikoa, aurkeztu du. Lurralde guztietan bilkurak aurreikusi dira. Era berean, Euskaltzaindiarekin lotura handia zuten pertsonen jaiotzen mendeurrenak-eta kontuan hartuz, bestelako ekitaldiak ere aurreikusi dira. Ondorioz, hona hemen aurkezturiko behin-behineko egutegia:

Urtarrila	30	Osoko bilkura Ageriko bilkura: hilberri txostenak	Bilbo Bilbo
Otsaila	27	Osoko bilkura	Gasteiz
Martxoa	27	Osoko bilkura Ageriko bilkura: EAE / RSBAP, 250. urteurrena	Azkoitia
Apirila	23	XIX. Barne Jardunaldia	Bilbo
	24	Osoko bilkura	Bilbo
Maiatza	29	Osoko bilkura	Donostia
Ekaina	26	Osoko bilkura Ageriko bilkura, Eugène Goihenetxeren jaiotzaren mendeurrena	Baiona
Iraila	25	Osoko bilkura – Nafarroa Oinez 2015 antolatzen duen Baztango Ikastolari bisita Ageriko bilkura, Mariano Izeta ohorezko euskaltzainaren jaiotzaren mendeurrena	Elizondo
Urria	30	Osoko bilkura Ageriko bilkura, Koldo Mitxelenaen jaiotzaren mendeurrena	Donostia
Azaroa	27	Osoko bilkura	Bilbo
Abendua	18	Osoko bilkura	Bilbo

Behin-behineko egutegiari bestelako mendeurrenak ere gehitu zaizkio, ondo irudituz gero, aurkezturiko egutegiari gehitzeko, euskaltzainek hala ikusten badute.

B. Oihartzabalek esan du Eugène Goihenetxeren jaiotzaren mendeurrenaren omenaldiarekin batera, beste batzuen ere kontuan har litekeela (besteak beste, Piarres Lartzabal aipatu du). Euskaltzainburuak esan du hobe dela urteurrenak elkarrekin ez jartzea, pertsona desberdinak ohoratzea nahasgarria gerta daitekeelako, eta hori Ageriko bilkura gehiago eginez konpon litekeelako.

Puntu honekin amaitzeko, oharrak edo proposamenak egiteko aldia azaroaren 25ean amaitzen dela erabaki da.

6. Esku artekoak.

6.1. Euskaltzaindiaren eta Mendebalde Kultur Alkartearen arteko lankidetzaren hitzarmenaz. Izenpetu da urriaren 16an, egoitzan. Bi erakundeon arteko elkar-lana euskararen normalizaziorako proposatzen diren egitasmoen inguruan gauzatu-ko da, euskararen jakitean, erabileran zein haren aldeko sustapenaren ikerketan, dibulgazioan eta sentiberatzean batez ere. Besteren artean, hitzarmenak honako hau jasotzen du: Euskaltzaindiak garatzen diharduen *Lexikoaren Behatokia* elikatze-ko asmoz, Mendebalde Kultur Alkarteak argitaraturiko euskarazko testu-multzoa Akademiaren eskuetan jarriko duela.

6.2. Ipar Euskal Herriko Garapen Kontseiluan Euskaltzaindiaren ordezkariak. Jean-Baptiste *Battittu* Coyos Jagon sailburua eta, ezin duenean, Txomin Peillen euskaltzaina izendatzea proposatu du Zuzendaritzak, 2014ko urriaren 28an eginiko bilkuran. Proposamena onartu da Osoko bilkuran.

6.3. Bernardo Atxaga idazle eta euskaltzain osoak irabazi du Euskadi Literatura Saria euskarazko narratiba alorrean *Nevadako egunak* liburuarekin. Epai-mahaikideen esanetan, «hitzaren magia dario Bernardo Atxagaren prosari liburu honetan». Euskaltzaindiaren Osoko bilkurak zorionak ematea erabaki du.

6.4. Eusko Ikaskuntza – Laboral Kutxaren Humanitate, Kultura, Arteak eta Gizarte Zientzien Saria 2014, emate ekitaldia. Azaroaren 12an, arratsaldeko 18:00etan, Donostiako Miramar Jauregian egingo da. Mariasun Landak eta Jean-Baptiste Orpustan ohorezko euskaltzainak jasoko dute saria.

6.5. 2014ko R. M. Azkue Literatura Sariak. Aurtengo deialdia abian jarri da.

Euskaltzainei honen berri eman eta eskola eta ikastoletara bidaliko diren esku orri bana eman zaie.

6.6. Hurrengo bilkurak. Hona hemen:

- Azaroaren 14an, XIX. Jagon Jardunaldia egingo da Donostian, Luis Villasante Euskararen Ikergunean, *Euskararen biziberritzea Euskal Herriko hiriburuetan* goiburupean. S. Aleman Sustapen batzordeburuak egitaraua aurkeztu du, bai eta euskaltzainei esku orriak banatu ere.
- Azaroaren 29an, larunbata, Osoko bilkura egingo da Markina-Xemeinen, Lea-Artibai Amankomunazgoaren liburutegian.
- Azaroaren 29an, eguerdiko 12:00etan, Jabier Kaltzakorta euskaltzainaren sar-rrera-hitzaldia dela eta, Ageriko bilkura egingo da Markina-Xemeingo Udale-txeko Batzar aretoan.

7. Azken ordukoak.

Ez da gairik izan.

Eta besterik ez dela, 12:45ean Osoko bilkura bukatutzat eman da.

Andres Urrutia Badiola,
euskaltzainburua

Xabier Kintana Urriaga,
idazkaria